

# 1 Sarrera

---

Izarra Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago 2012ko azaroaren 21etik. Bere helburu nagusia Ermuan eta haren inguruan ekoizpen- eta enplegu-sistemaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatzea da.

Azken batean, Izarra Fundazioa garapen ekonomikorako udal-politikaren beste tresna bat da, pertsonen bizi-kalitatea bermatzeko lan egiten duena, eta horretarako:

- Lurralde-lehiakortasuna babesten eta bultzatzen du.
- Enpresen dibertsifikazioa eta digitalizazioa sustatzeko jarduerak garatzen ditu.
- Edozein mailatako prestakuntza eta orientazio profesionala bultzatzen ditu.
- Eskualdean enpresa berriak sortzeko dauden aukerak hobetzen ditu.
- Lankidetzan oinarritutako enpresa-garapenaren eredua bultzatzen du.
- Pertsona eta enpresa lehiakorrek Ermutik ihes egin ez dezaten lan egiten du, eta suspertzen ari diren sektoreekin lotutako balio ekonomiko eta soziala erakartzen du.
- Aurretik aipatutako interes orokorreko fundazioaren helburuak lortzeko beste edozein ekimen eta ekintza garatzen du.

Ildo horretan, Izarra Fundazioak ekosistema erakargarri bat sortu nahi du enpresa-ekimen berriak kokatzeko. Beren talentua garatu eta egin dezaketen pertsonak bere ilusioak errealitate bihurtzeko lan egiten du.

Horregatik guztiagatik, Izarra Fundazioak "Ermua Ekinean" programa integralaren oinarriak jarri ditu abian.

## 2 Xedea

---

Programa honen xedea negozio-ideiak eta enpresa-proiektuak abian jartzea eta finkatzea erraztea da, eta, horretarako, haien beharretara egokitutako zerbitzuak eta baliabideak ematen ditu.

## 3 Onuradunak

---

Enpresa proiektu edo idea berritzaile bat duten eta Izarra Centren garatu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Ezin izango zaie laguntzarik eman pertsona fisiko edo juridikoei, baldin eta:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.
- Ebazpen irmo baten bidez diru-laguntzak eta/edo laguntzak jasotzeko aukera galduz zehatuak izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat izatea.
- Ermuko Udalarekin edota Izarra Fundazioarekin zorrak izatea.

## 4 Programan parte hartzeko onuradunen betebeharrak

---

Deialdian parte hartzeko onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Lantokia eta jardueraren helbide fiskala Izarra Centren izatea.

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon daitezke. Kasu horretan, JEZaren alta-data ezin da eskaera egin aurreko 12 hilabetetik gorakoa izan.

Pertsona juridikoak izanez gero, ETEak izan beharko dute. ETEtzat hartuko dira 250 pertsona baino gutxiago betetzen dituzten enpresak, urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez dutenak edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenak. ETEen definizioa Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean dago jasota.

Deialdi honetan aurreko hiru edizioetako edozeinetan parte hartu ez duten pertsonak.

## 5 Programaren xede diren idea/proiektuen ezaugarriak

---

"Ermua Ekinean" programan sartu ahalko dira bi modalitate hauetako batean sartutako negozio ideia edo proiektuak.

### A Modalitatea. "Start"

Modalitate honetara sartu ahalko dira fase hasiberri batean dauden eta beren bideragarritasuna aztertu nahi duten negozio ideiak dituzten pertsonak, beren negozio eredua diseinatu eta gutxieneko produktu bideragarri baten bidez (MVP) testatuz. Programan parte hartzeko eskabidea egiten denean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dauden pertsona fisiko edo juridikoek ezin izango dute modalitate hau erabili.

### B Modalitatea. "Scale up"

Negozio-eredua diseinatu duten, merkatuan kontrastatu duten eta hori finkatzeko lanean ari diren pertsona fisiko edo juridikoak sartu ahal izango dira modalitate honetara. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dauden pertsona fisiko eta juridikoak sartu ahalko dira. Kasu horretan, JEZaren alta-data ezin da eskaera egin aurreko 12 hilabetetik gorakoa izan.

Bi modalitateetan, programan sartu ahal izateko, ideia eta proiektuek osagai berritzaile argia erakutsi beharko dute eta 8. atalean zehazten diren ebaluazio irizpideei erantzun.

## 6 Ideiak/proiektuak eskatzeko eta hautatzeko prozedura

---

Eskabidea deialdi bakoitzean eskura dagoen formularioa betez gauzatuko da.

Eskatzaileek eskabidean bideo labur bat erantsi beharko dute, gehienez ere 3 minutukoa, beren ideia / proiektua azaltzeko. Bideoa edozein euskarri edo gailuren bidez grabatu ahal izango da, baina formatu hauetako batean bidali beharko da: MP4, MOV, WMV edo AVI. Bideoa [administracion@fundacion.eu](mailto:administracion@fundacion.eu) helbidera bidali behar da.

Ebaluazio batzordeak zenbait ideia / proiektu hautatuko ditu, eta Izarra Centren egingo den saio presentzial batean aurkezteko deia egingo da. Proiektu horien defentsa ebaluazio batzordearen aurrean egingo da, eta batzordeak oinarri hauetako 8. atalean ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko ditu.

Ideiak / proiektuak hautatu ondoren, hautatutako pertsoneri jakinaraziko zaie 10 eguneko epea dutela programan sartzeko. Onarpen hori jasotzen ez badu, baztertuztat joko da.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da modalitate bakoitzerako gehienez zenbat eskabide onartuko diren.

## **7 Aukeratutako ideiaen/proiektuen eskura dauden zerbitzuak eta baliabideak**

---

Hautatuak izan diren modalitatearen arabera, honako onura hauek izango dituzte pertsonak. Izarra Fundazioko teknikariek zehaztuko dituzte, kasu bakoitzean hautemandako premia espezifikoaren arabera.

### **7.1 A Modalitatea. "Start"**

---

6 hilabeteko iraupena duen programa, ideia garatzen, negozio-eredua diseinatzen eta abian jartzen eta ideiarene etorkizuneko bideragarritasun-azterketa egiten laguntzeko.

#### **1. Formakuntza programa "Start"**

Formakuntza-programa honetan negozio-ereduaren diseinua eta abiaraztea landuko dira, ideiak merkatuan duen portaera ezagutzeko.

#### **2. Izarra Centre-ko "Coworking" gunerako sabidea**

Izarra Centre-ko "Coworking" gunera doan sartzea lehen sei hilabeteetan. Denbora hori iraganik, ideia edo proiektuaren bilakaera ebaluatuko da, eta egonaldia luzatu ahal da 28. ordenantzan ezarritako baldintzen arabera. Toki Garapeneko Alorreko azpiegiturak erabiltzeko prezio publikoa.

#### **3. Negozio eredia abian jartzeko aholkularitza**

Aholkularitza zerbitzua, non pertsoneri lagunduko zaie negozio eredia diseinatzen eta abian jartzeko prozesuan, bai eta negozioa formalizatzeko dauden alternatibak ere, lortutako emaitzen arabera.

#### **4. Mentoring espezializatua**

Ideiarene edo proiektuaren berriazko beharren arabera, batez ere alderdi teknikoari dagokionez, mentoring zerbitzu espezializatua jartzen da pertsonen eskura, gai horretan adituak izanda. Hasiera batean, aditu-aholkularitza horren 10 ordu emango zaizkio pertsonari, eta hori areagotu egin daiteke, baldin eta aholkulariak aldeko txostena egiten badu eta funtsak eskura baditu.

#### **5. Finantziaketa bilatzeko laguntza-zerbitzua**

Proiektua garatu eta abian jartzeko finantziaketa bilatzeko laguntza zerbitzua, Izarra Fundazioaren eta Ermuko Udalaren eskura dauden ekintzailatza sustatzeko programetarako sarbidea erraztuz.

#### **6. Izarra Centre-ko zerbitzu-eskaintza guztirako sarbidea**

Izarra Centre-ko zerbitzuen eskaintza eskuratu ahal izango dute pertsonak, hala nola jardunaldiak/ekitaldiak, Izarra Centre-ko enpresen arteko bilerak eta networkinga, bilera- eta prestakuntza-aretoetarako sarbidea, etab., 28. ordenantzan ezarritako baldintzen arabera. Toki Garapeneko Arloko azpiegiturak erabiltzeagatik prezio publikoa ".

## **7. Hedapena eta sustapena**

Izarra Fundazioak programan parte hartzen duten ideia eta proiektuak zabaldu eta sustatuko ditu eskura dituen kanalen bidez.

### **7.2 B. Modalitatea "Scale up"**

---

6 hilabeteko iraupena duen programa. Hautatutako pertsonari enpresa-proiektua formalizatzen eta negozio-eredua finkatzen lagunduko zaie.

#### **1. Formakuntza programa "Scale up"**

Enpresa-kudeaketan eta sendotzeko eta hazteko estrategietan trebatzera bideratutako trebakuntza-programa.

#### **2. Bulegorako sarbidea Izarra Centre mintegian**

Izarra Centreko mintegian bulego batera sartzeko aukera, kostu murriztuan, 28. ordenantzaren arabera. Izarra Centreko mintegian bulego batera sartzeko aukera espazioen erabilgarritasunari eta ordenantza horretan ezarritako irisgarritasun-irizpideei lotuta egongo da. Toki Garapeneko Arloko azpiegiturak erabiltzeagatik prezio publikoa. Kostu horrek barnean hartuko ditu energia-gastuak eta Internetarako sarbidea. "

#### **3. Negozioa formalizatzeko eta jarduera finkatzeko aholkularitza.**

Aholkularitza zerbitzua, negozioa formalizatzeko eta jarduera finkatzeko prozesuan pertsonari laguntzeko.

#### **4. Mentoring espezializatua**

Ideia- edo proiektuaren berriazko beharren arabera, batez ere alderdi teknikoari dagokionez, mentoring zerbitzu espezializatua jartzen da pertsonen eskura, gai horretan adituak izanda. Hasiera batean, aditu-aholkularitza horren 15 ordu emango zaizkio pertsonari, eta hori areagotu egin daiteke, baldin eta aholkulariak aldeko txostena egiten badu eta funtsak eskura baditu.

#### **5. "Lehen Aukera" programan sarrera**

"Lehen Aukera" Izarra Fundazioak abian jarritako programa bat da, eta pertsona ekintzaileei merkatura hurbiltzeko fase hasiberri batean kontratazio- edo salmenta-aukerak eskuratzen laguntzea du helburu. "Ermua Ekinean" programan hautatutako pertsonak "Lehen Aukera"n sartu ahalko dira, lehentasunez. "Lehen Aukera" oinarri eta baldintzen mende.

#### **6. "Acelera IC" funtsaren sarbidea**

"Acelera IC" Izarra Fundazioak kudeatzen duen partaidetzako maileguen fondoa da, eta dagoeneko merkaturan probatu diren negozio-ideiak finkatzen eta mailakatzen laguntzen du, 30.000 euroraino. "Ermua Ekinean" programan hautatutako pertsonak baliabide horiek lehentasunez erabili ahalko dituzte. "Acelera IC" oinarri eta baldintzen mende.

## 8. "Ermua UrbanLab" hiri-laboregira sarbidea

Hautatutako pertsonak "Ermua UrbanLab" Hiri Laboregira sartu ahal izango dira, eta bertan beren negozio, produktu eta zerbitzuen ereduak ingurune errealean probatu ahal izango dituzte.

## 9. Izarra Centre-ko zerbitzu-eskaintza guztietarako sarbidea

Izarra Centre-ko zerbitzuen eskaintza eskuratu ahal izango dute pertsonak, hala nola jardunaldiak/ekitaldiak, Izarra Centre-ko enpresen arteko bilerak eta networkinga, bilera- eta prestakuntza-aretoetarako sarbidea, etab., 28. ordenantzan ezarritako baldintzen arabera. Toki Garapeneko Arloko azpiegiturak erabiltzeagatik prezio publikoa".

## 10. Hedapena eta sustapena

Izarra Fundazioak programan parte hartzen duten ideia eta proiektuak zabaldu eta sustatuko ditu eskura dituen kanalen bidez.

# 8 Ebaluazio-irizpidiak

---

Eskabideak elkarren segidan ebaluatuko dira, eta prozesu inpartziala eta eraginkorra bermatuko zaie interesdun guztiei. Jasotako eskaerak irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

### 1. Berrikuntza-maila

Idea edo proiektuaren berrikuntza-maila, baita Ermuan duen berritasuna ere. (30 puntu)

### 2. Europako hazkunde ekonomikoaren ereduaren lehentasunekin bat etortzea. Digitala, ekologikoa eta erresilientea.

Zenbateraino erantzuten dien ideia edo proiektuak Europako lehentasunei digitalizazioaren, ingurumen-jasangarritasunaren eta erresilientzia edo garapen sozialaren arloan. (20 puntu)

### 3. Ermuko lehentasun estrategikoekin bat etortzea.

Zenbateraino egokitzen den ideia edo proiektua Ermuko lehentasun estrategikoekin, eskaera egiten denean indarrean direnekin. Lehentasun horiek [www.ermua.eus](http://www.ermua.eus) webgunean kontsultatu ahal izango dira. (20 puntu bitarte)

### 4. Ideia/proiektuaren bideragarritasuna

Ideen eta proiektuen bideragarritasun ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa baloratuko da. (30 puntu, gehienez)

Izarra Fundazioak informazio gehigarria eskatzeko aukera izango du, eskabideak behar bezala ebaluatzeko beharrezkoa bada.

# 9 Ebaluazio batzordea

---

Ebaluazio batzordea Izarra Fundazioko teknikariek eta Ermuko Udaleko teknikariek osatuko dute.

# 10 Hautatuako pertsonen betebeharrak

---

Hautatuek beren modalitateko Trebakuntza Programa osatzeko konpromisoa hartzen dute, baita aholkularitza eta mentoring saioetan adostutako lanak ere, beren eskura jarritako zerbitzuak ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Halaber, lantoki nagusia Izarra Centren jarri beharko dute. Parte hartzeko maileguren "Acelera IC" fondora sartu ahal izanez gero, helbide soziala eta fiskala Izarra Centren kokatu beharko dira.

Konpromiso horiek betetzen ez badira, pertsona horientzako programa bukatutzat joko da.